



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

18. ERABAKIA: JANTEGIKO BAZKARIAREN PREZIOA EMENDATZEA 2022ko IRAILAREN 1etik GOITI.

Ortzaizeko herriak du Ortzaizeko lurraldean kokatutako eskoletako haurrak errezibitzen dituen jantegiaren kudeaketaren eskumena: eskola publikoa, San Mixel eskola eta Ortzaizeko ikastola.

Jaun auzapezak oroitarazten du 2021eko azaroaren 3ko erabakiaren arabera, bazkariaren prezioa 4,50 €tan finkatua izan zela 2020-2021 ikasturterako. Azaltzen du 2018ko EGALIM legea aplikatu denetik, "SUHARI" janari prestatzaileak bere prezioak emendatu dituela 2022ko urtarrilaren 1etik goiti, herria bazkariaren prezioa emendatzera behartuz.

Bazkariaren prezioa **4,50 €tik 4,70 €ra** igotzea proposatzen du, soilik 2022ko irailaren 1etik goiti.

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak,

- **ERABAKITZEN DU** Ortzaizeko jantegiko bazkariaren prezioa 4,70 €ra emendatzea 2022ko irailaren 1etik goiti.

- **BAIMENA EMATEN DIO** auzapezari gai honi lotutako urraspide oro abiatzeko eta dokumentu oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

